

**2010EKO MARTXOAREN 26AN GOBERNU BATZARRAK EGINDAKO  
OHIKO BILERAREN AKTA**

**LEKUA:** Beasaingo Udaletxea

**ARETOA:** Batzar Aretoa

**EGUNA:** Hogeita sei

**HILABETEA:** Martxo

**URTEA:** Bi mila eta hamar

**HASIERAKO ORDUA:** Goizeko hamarrak eta erdietan.

**BATZARRALDIAREN IZAERA:** Ohikoa

**DEIALDIA:** Lehena

**OSATZEN DUTEN PARTAIDEEN KOPURUA:** Sei (6)

**MAHAIBURUA:** Patxi Plazaola Muguruza

**BILDUAK:** Aitor Aldasoro Iturbe  
Jon Kortaberria Lasa  
Fernando Boada González  
Begoña Lasa Royuela  
Julio Herreros Serna

**IDAZKARIA:** Itziar Arostegi Apaolaza

**1.- AURREKO AKTA.** 2010eko martxoaren 15eko aktaren berri eman ondoren, bildutakoek aho batez onartu dute aktarekiko zeresanik ez dagoelako.

**2.- OBRAK ESLEITZEA.** Ezkierdi parkea urbanizatzeko obrak esleitzea.

Aho batez onartu da, ondorengo Kontratazio-Mahaiaren proposamena:

“Gobernu Batzordeak 2010eko otsailaren 26an, ”**Ezkierdi parkea urbanizatzeko**” obrak kontratatzea erabaki zuen publizitate gabeko prozedura negoziatuaren bitartez, horretarako baldintza plegua onartuz.

Lizitazio prezioa: 83.297,35 €, BEZ barne.

Lizitaziora, 13 eguneko epea emanaz parte hartzeko prozeduran, ondorengo enpresei bidaltzen zaie gonbidapena:

CNES ARKAITZA, CNES GABILONDO, CNES IRABA, CNES ITURRIOZ, CNES KOLDO KEREJETA, CNES MUJIK A SL, CNES ORIAKO, CNES Y EXCAVACIONES FRESNEDA

Eskaintzak aurkezteko epea amaitu ondoren, aurkeztu diren enpresek ondorengoak izan dira:

CNES ARKAITZA, CNES ITURRIOZ, CNES ORIAKO

2010eko martxoaren 24an, plikak irekitzen dira eta emaitza ondorengoa da:

OBRAS DE URBANIZACION DEL PARQUE EZKIERDI								
LICITACION		OFERTANTES						
Importe	Plazo (semanas)	CONTRATISTA	OFERTAS				Baja Media	
			Ejecución Contrata	IVA	Total oferta	Plazo		
83.297,35	12 SEMANAS	CNES ARKAITZA	71.090,01	11.374,40	82.464,41	12	100,87%	
		CNES GABILONDO						
		CNES IRABA						
		CNES ITURRIOZ	70.075,81	11.212,13	81.287,94	7	99,43%	
		CNES KOLDO KEREJETA						
		CNES MUJIKA SL						
		CNES ORIAKO	71.503,97	11.440,64	81.516,45	12	99,71%	
		CNES Y EXCAVACIONES FRESNEDA						
		<b>MEDIA PROPUESTAS</b>			81.756,27	10,33		

Aurkeztutako eskaintza guztiak baliagarriak dira, gehiegizko beherapen mugen barruan daudelako.

Esleipen-irizpide bakarria prezioa denez, prozedura preziorik baxuena eskaintzen duenari esleituko zaio.

Horren ondorioz, Kontratazio-Mahaiak Gobernu Batzordeari ondorengo proposamena egiten dio:

**Lehenik.** "Ezkierdi parkea urbanizatzeko" obrak, CONSTRUCCIONES ITURRIOZ enpresari esleitzea kopuru honetan: 70.075,81 €, BEZrik gabe ((81.287,94 €, BEZ barne). Egikaritzæ epea, 7 hilabetekoa izango da, zuinketa akta sinatzen den hurrengo egunetik kontaktzen hasita eta hau kontratua sinatzen denetik 15 laneguneko epean egingo da.

**Bigarren.** 15 laneguneko epean adjudikaziodunak idatzi hau jasotzen duen hurrengo egunetik kontaktzen hasita, zerga eta gizarte segurantzã betebeharrak betetzen dituenaren ziurtagiriak nahiz, 3.503,80 €ko behin betiko fidantzã.

**3.- OBRAK LIZITATZEA.** Proiektua eta bladintza plegu administratiboa onartzea eta deialdi publikoa egitea, 1 Area oinezatzeko, 3. fasea (Kale Nagusia) eta 4. fasea (J. M. Iturriotz eta Bideluze plaza).

Hirigintza batzordeak proposatuta, aho batez erabaki da 1 Area oinezatzeko, 3. fasea (Kale Nagusia) eta 4. fasea (J. M. Iturriotz eta Bideluze

plaza), obrei buruzko proiektua eta baldintza plegua onartzea eta deialdi publikoa egitea. Ezaugarri orokorrak hauek dira:

1.- Xedea: "1 Area oinezatzeko, 3. fasea (Kale Nagusia) eta 4. fasea (J. M. Iturriotz eta Bideluze plaza), izendatutako proiektuaren obrak kontratatzea.

2.- Prozedura: irekia publizitatearekin

3.- Izapidetzea: arrunta

4.- Lizitazio prezioa: 1.102.764,65 € BEZik gabe. 1.279.206,99 €, BEZ barne.

5.- Espedientea: administrazio-baldintzen eta baldintza teknikoen pleguak eta bestelako dokumentazioa, interesatuen esku aurkitzen dira, Udalaren web orrian ([www.beasain.net](http://www.beasain.net)). Zehazki kontratatzailearen profilean.

6.-Behin betiko bermea: Adjudikaziodunak kontratua sinatu aurretik aurkeztu behar duen bermea esleipenaren aurrekontuko %5aren balioa duena izango da, BEZ kanpo.

7.- Proposamen eredua: Baldintza Administrazioen pleguaren eranskinean azaltzen dena.

8.- Aurkezteko epea, lekua eta ordua: Proposamenak, Beasaingo Udaleko Erregistro Orokorrean aurkeztu beharko dira iragarkia, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, argitaratzen denetik eta hurrengo 13 egunetan.

9.- Klasifikazioa: **A Multzoa, 2 Azpi-multzoa, b kategoria**  
**C Multzoa, 2 Azpimultzoa, b kategoria**  
**C Multzoa, 6 Azpi-multzoa, c kategoria**  
**E Multzoa, 1 Azpimultzoa, c kategoria**  
**I Multzoa, 1 Azpimultzoa, c kategoria**

10.- Adjudikazio irizpideak:

- Prezioa: 40 puntu.

- Obraren azterketa. Lan-egitaraua: 50 puntu.

- Obrari atxikitako pertsonala eta asistentzia teknikoak: 5 puntu.

- Epea: 5 puntu.

11.- Proposamenak irekitzeko lekua, eguna eta ordua: plika irekitzea kontratatzailearen profilean argitaratzen den tokian, egunean eta orduan egingo da.

12.- Aurkeztu beharreko agiriak: Lizitatuzaileek administrazio-baldintzen Pleguan adierazitako agiriak aurkeztu beharko dituzte.

#### **4.- ESKAERA ETA GALDERAK.**

Eskaera eta galderan atalean, San Martin plazako behekaldean azokako postuak jartzeko dagoen proposamenari buruz hitz egin da.

Eta tratatzeko besterik ezean, bilera goizeko hamaikak hogeit gutxiagotan amaitu da eta nik, idazkari naizen honek, akta hau idatzi eta sinatu dut.